

ORDENANTZA FISKALEN POSIZIONAMENDUA

Arratsalde on,

Aurreko udalbatzan gobernuaren talde minoritarioak hitz egin zuenez aipatutako gobernuaren izenean, oraingoan oposizioko talde txikiena izango da oposizioa osatzen duten 3 alderdiak ordezkatzuz hitz egingo duena.

Errespetuz eta adi-adi entzun ditugu EAJko bozeramalearen azalpenak, nahiz eta azken plenoan demagogo batzuk izatearen akusazioak egin. Hainbat aldiz aipatu zen orduan lan esparru moduan batzordeek duten garrantziaz, hau da formak, baina hemen gobernuak bere hitza jan du. Lau haizetara hedatu du prentsan 2019 ordenantza fiskalen onarpena, zeintzuek baziruditen onartuak zirela pleno honen aurretik gerri politiko gutxi erakutsiz.

Salatu nahi dugu ordenantza fiskal hauek onartzeko eroan den prozedura ondorengo arrazoiengatik:

1.- Ogasun batzordean bazen konpromisoa, EAJ-PSE-EH BILDU akordio bidez lortua, ordenantza fiskalak sakon aztertzeko eta EH BILDUren eskariz progresibitatea aplikatzeko, gainontzeko taldeen adostasunez. Amaitu gabeko lana izan da, baina bere emaitzak eman zituen eta ez dira kontuan hartuak izan gobernuaren planteamenduan. Ez dute aipatu ere egin batzordean edota prentsan. Zoritxarrez hau ohikoa da ibilbide politiko luze eta sakonetako lanetan udaletxean.

2.-Proposamenak ostegunez banatu ziren batzordean eta eztabaida hasi ere egin gabe ondorengo asteartean, gobernuak prentsari aurreratu zion bere erabakia gehiengo osoak ematen duen segurtasunez. Alegia, lehenago onartzen dituzue ordenantza fiskalak hedabideetan dagozkien organotan baino, lehenengo batzordean diktaminatuz eta bigarrenengo proposamena plenoa eroanez. Negoziazioaz aho txikiaz hitz egin duzue, tramite gisa gehiago jarrera gisa baino.

Hau hala izanik, eta batzordean egin genuen modu berean, uko egiten diogu ordenantza fiskalen botazioan parte hartzeari salatzeko "ustezko negoziazio" hau izan den adar jotzea.

Eskerrik asko IRABAZI, BALEIKE y EH BILDUren izenean.